


HIZNET Hizkuntza Plangintza Graduondokoa
Sakontze egitasmoa
2014-2015 ikasturtea



*Euskararen
Agenda
Estrategikoa
(2013-2016)*

aztergai

Egilea: HIART LEGARRA URUBURU
Tutorea: OLATZ OLASO GARITANO

Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016) aztergai

2015eko uztaila

AURKIBIDEA

LABURPENA.....	5
1. SARRERA	6
2. OINARRIA	8
3. METODOLOGIA.....	11
4. AZTERKETA.....	14
4.1. <i>Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016). Lan-ildoak</i>	15
1.- Ezagutza eta erabilera	16
2.- Arnasguneak	19
3.- Familia.....	20
4.- Hiri handietako euskararen erabilera.....	21
5.- Elebitasun pasiboa: euskaldun hartzaileak	22
6.- Kultur kontsumoa	23
7.- Etorikinengana hurbiltzea.....	24
8.- Komunikatzeko estandarrak.....	25
9.- Hizkuntza eskubideak	26
10.- Euskarazko jardunaren erakargarritasuna eta prestigioa	27
11.- Informazio eta komunikazioaren teknologiak	28
12.- Hizkuntza politikaren inguruko akordioa.....	29
13.- Kanpo proiektzioa	30
4.2. 2014ko kudeaketa plana.....	31
4.3. 2014ko kudeaketa planaren jarraipen txostena	32
4.4. 2015eko kudeaketa plana.....	41
4.5. 2015eko kudeaketa planaren jarraipena	42
5. ONDORIOAK	43
6. BIBLIOGRAFIA	45
ERANSKINA.....	48

TAULEN AURKIBIDEA

1. TAULA: Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016) proiektuaren plangintza.....	10
2. TAULA: Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016). Kudeaketa Planaren egitura	11
3. TAULA: Azterketaren egitura	14
4. TAULA: Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016). Lan-ildoak.....	15
5. TAULA: 2014an betetzekoak diren ekintzak eta zereginak arloz arlo	31
6. TAULA: 2014an bete diren / bete ez diren ekintzak eta zereginak arloz arlo	32
7. TAULA: 2014an zeregin zehatzik izan ez duten ekintzak.....	34
8. TAULA: Eusko Jaurlaritzako eragileak.....	37
9. TAULA: Eusko Jaurlaritzatik kanpoko eragileak	38
10. TAULA: AMIA analisia	39
11. TAULA: 2015ean betetzekoak diren ekintzak eta zereginak arloz arlo	41
12. TAULA: 2015ean beteko diren / beteko ez diren ekintzak eta zereginak arloz arlo, osatzeko.....	42

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. GRAFIKOA: 2014an bete diren ekintzak arloz arlo	33
2. GRAFIKOA: 2014an bete diren zereginak arloz arlo	33
3. GRAFIKOA: Euskaldunen bilakaera lurraldearen arabera. EAE, 1981-2011 (%)	44
4. GRAFIKOA: Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, lurraldearen arabera. EAE, 1991-2011 (%)	44

LABURPENA

Izenburuak adierazten duen legez, sakontze egitasmo honetan *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)* aztertu dugu, Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetan euskara sustatzeko garatu nahi duen proiektua. Horrela bada, bertan jasotako jardueren jarraipena egin dugu *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)*. *Kudeaketa Plana* oinarri hartuta.

Gako hitzak:

hizkuntza normalizazioa, hizkuntza plangintza, plan estrategikoa,
euskara indarberritzea, ekintzak

1. SARRERA

Euskal herritar guztiek, legez, nahi duten hizkuntza ofiziala –euskara zein gaztelania– erabiltzeko eskubidea dute Euskal Autonomia Erkidego osoan (10/1982 Legea, *Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa*). Hala eta guztiz ere, gaurko egoera soziolinguistikoan, bi hizkuntzak ofizial izateak ez du bermatzen herritarrok hizkuntza aukera berberak izatea, eta euskaraz aritzeko zailtasunak izan ohi ditugu zenbait egoeratan. Horregatik, bi hizkuntzen arteko parekotasuna eta bizikidetzaren sustatzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak 2013-2016 legealdian euskara indarberritzeko egin nahi dituen jarduerak nagusiak jaso ditu *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)*¹ proiektuan. Agenda 2014ko ekainaren 24an onartu zuen Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak.

“Helburua beti da bat eta bera: elebitasun gero eta orekatuago bat, gero eta gizarte kohesionatuago baten mesedetan. Horrek eskatzen du, besteak beste, gero eta herritar elebidun gehiago, gizarte gero eta elebidunago batean, euskara gero eta gehiago erabiltzen duen gizartea.” (HPS 2014b: 11; Urkullu lehendakariaren hitzak Agendaren aurkezpen ekitaldian)

Gaiak erakarrita, *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)* aztertu gura dugu HIZNET Hizkuntza Plangintza Graduondokoaren sakontze egitasmo honetan.

Agendaren epealdia 2013-2016 dela eta 2015 urtean gaudela gogoan hartuta, helburua honako hau da: orain arte aurreikusitako jarduerak bete diren edota betetzen ari diren ikertzea, aurrera begira dauden asmoak ezagutzea eta erabilitako taktika egokia den hausnartzea. Horretarako, euskarri izan dugu *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)*. *Kudeaketa Plana*². Dena den, ez da ahaztu behar sakontze egitasmo hau amaitu ondoren ere, Agenda indarraldian egongo dela 2016 amaierara arte.

¹ *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)*: http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-catpub/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=051545&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FOR_MATO=.pdf

Horrez gain, ikusi Mosteiro (2014), *Euskararen Agenda Estrategikoa* eranskina.

² Argitaratu gabeko dokumentua da.

Hortaz, sarrera orokor honetan, ikerlanaren testuingurua irudikatzen saiatu gara; egitasmoaren zergatia azaldu, helburua mugatu eta nondik norakoa zehaztu ditugu. Bigarren atalean, ikerketaren oinarria laburbildu da. Hirugarren atalean, ikerketaren metodologia azaltzen jardun dugu. Laugarren atalean, azterketa bera izan da jomuga. Bosgarren atalean, ondorioak hausnartu ditugu. Azkenik, seigarren atalean, bibliografia orokorra bildu da.

2. OINARRIA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ardurapekoa den *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)* aurretik eginiko bi lanetan oinarrituta dago: XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak jasotzen dituen *Euskara 21. Itun berritu baterantz*³, eta *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)*⁴ eguneratzen duen *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)*⁵. Era berean, euskararen sustapenari buruz Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak emandako lege-araudiak eta berariazko Erabilera Planak –Eusko Jaurlaritza, EITB, Justizia Administrazioa, Osakidetza eta Ertzaintza erakundeetakoak– ere aintzat hartzen ditu.

Horrenbestez, elebitasun orekatuagoa lortzeko bidean, ESEPEk berariaz Eusko Jaurlaritzari esleitzen dizkion eginkizunak eta berri batzuk bereganatzen ditu *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)* proiektuak, funtsean: 13 lan-ildo edo arlotan banatu da; arlo bakoitzean zehaztu dira helburu nagusia, helburua lortzeko ekimenak (34 guztira) eta horiek bideratzeko ekintzak (168 guztira).

Ekintza horiek guztiak 2013-2016 epealdian abiarazi edo egitekoak dira; ekintzen %60 2014ko amaierarako abian jarrita egotea aurreikusi da, %75 2015eko amaierarako eta %90etik gora 2016ko amaierarako. Horietako asko dagoneko gauzatu dira, beste batzuk bideratuta daude, eta gainerakoak legealdi honetan jarriko dira martxan. Hainbat burutu egingo dira legealdiaren barruan; beste hainbatek, berriz, jarraipena izango dute geroko urteetan ere.

³ *Euskara 21. Itun berritu baterantz*: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/esepe_sarrera/eu_esepe_adjuntos/euskara21_itun_berritu.pdf

Euskara 21. Itun berritu baterantz txostenak lehenetsuneko 14 ildo zehazten ditu, hizkuntza politikaren inguruan egindako gogoeta prozesu sakonaren ekarpena.

⁴ *EBPN*: <http://www.euskara.euskadi.eus/r59-733/eu/>

*EBPN*ren "helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea." (EAB 1999: 51)

Planak 3 helburu estrategiko ditu: euskara ondorengoetaratzea, euskararen erabilera eta euskararen elikadura.

EBPN berrikusteko bidean, kontuan hartu behar da 101 adierazleaz osatutako *Euskararen egoerari eta bilakaerari buruzko adierazleak* txostena, HPSk aurkeztutakoa: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092_adjuntos/ebpn_txostena/EBPN%20Txostena%20eusk.pdf

⁵ *ESEP*: http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/esepe_sarrera/eu_esepe/esepe.html

*ESEPE*ren "helburu nagusia euskararen erabilera indartzea da." (EAB 2012: 10)

Planak 3 helburu estrategiko ditu: euskararen jabekuntza, euskararen erabilera eta euskararen elikadura; baita lagungarri diren 2 zehar-lerro ere: euskararen aldeko motibazioa eta euskararen zabalkundea. Helburu estrategiko horien arabera, 16 esparru, 90 neurri eta 340 bat ekintza zehaztu dira planean.

Azken batean, *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)* proiektuaren bidez euskararen normalizazioan aurrera egin nahi da, eta, esparru jakin batzuetan lortu nahi diren aurrerapauso azpimarragarrienak neurtzeko adierazleak ezarri dira: 15 esparru eta 38 adierazle guztira.

Reversing Language Shift (RLS) (Fishman 1991) liburuan jasotakoaren bidetik, hizkuntza indarberritzeko (*HINBE*) proiektua dugu eskuartean. Izan ere, *RLS* edo *HINBE*ren jomuga da larri dabilen hizkuntza gutxituak gero eta hiztun gehiago izan ditzala; eta hiztun horiek gero eta harreman-sare, jardun-gune eta egoera gehiagotan erabil dezatela beraien hizkuntza. Horrela bada, *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)*, edozein gizarte plangintza *-social planning-* bezala, 3 atal hauetan bil daiteke:

1. Estrategia: egoeraren diagnostiko zehatza egitea; hizkuntza indarberritzeko funtzio egokienak aztertu eta zehaztea.
2. Taktika: funtzio horiek indartzeko proiektuak garatzea.
3. Ebaluazioa: ondo, hala-hola eta txarto egin direnak aztertu eta horien zergatia argitzea.


Plangintza guztietan bezala, hizkuntza plangintzan⁶ ere jardun-lerro orokor batzuk ezarri, lortu beharreko helburuak finkatu eta horiek lortzeko ekintzak pentsatu eta gauzatu ohi dira, baita helburu eta ekintza horiek ebaluatzeko bitartekoak (adierazleak) zehaztu ere. Bestela esanda, honako bide hau egin behar dugu plangintzan: hizkuntza egoera diagnostikatu, helburuak edo lehentasunak jarri, lehentasun horietan eragiteko neurriak aukeratu eta gauzatu eta, azkenik, horiek ebaluatu. Azken finean, euskararen bilakaeraren indarguneak baliatu eta ahuleziak zuzentzea da xedea.

Estrategiak *-plangintza estrategikoak-* aurretiko lan batzuk ditu abiapuntu: aldatu nahi den egoeraren diagnostikoa egiteko, ezin da ahaztu *EBPN*ko euskararen *AMIA* analisia (ahuleziak / mehatxuak / indarguneak / aukerak). *Euskara 21. Itun berritu baterantz* txostenak egungo egoeraren diagnostiko orokorra jasotzen du, eta, hortik abiatuta, *ESEPE* egungo egoeraren diagnostiko laburra eta zer hobetuak. Tartean dugu *Euskararen egoerari eta bilakaerari buruzko adierazleak* txostena ere.

⁶ Hizkuntza plangintzari buruzko informazioa osatzeko ikusi, besteak beste, Zalbide (2014), Marko (2014), Mosteiro (2014), Arruti (2014), Gañan (2014) eta EMUN (2014).

Horiek guztiak gogoan, euskara indarberritzeko neurri batzuk finkatu dira *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)* proiektuan: hainbat ekintza planifikatu dira herri erakundeekin eta gizarte eragilerekin elkarlanean gauzatzeko. Ondoren, *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)*. *Kudeaketa Planaren* barruan zehatz-mehatz idatzi dira urtez urte garatzeko ekintzak, zereginak...

Taktika hori baliagarria izan den, ordea, ebaluazioa egitean ikusiko da. Arestian aipatutako adierazleen hazkundeak emango digu horren berri; eta horretarako probetxuzkoak izango dira *Inkesta Soziolinguistikoa* eta *Mapa Soziolinguistikoaren* datuak, 2016an argitaratzekoak direnak. Oraingoz, tarteko ebaluazio antzeko bat baino ezin dugu egin, proiektua 2016. urtera artekoa baita.



1. TAULA: *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)* proiektuaren plangintza

3. METODOLOGIA

Sarreran adierazitako legez, *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)* egitasmoan aurreikusitako jarduerak bete diren edota betetzen ari diren ikertzeko, aurrera begira dauden asmoak ezagutzeko eta erabilitako taktika egokia den hausnartzeko, *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)*. *Kudeaketa Plana* dugu sostengu nagusia. Horixe da gure helburua erdiesteko zehatz-mehatz landu behar duguna. Horrenbestez, lagungarri izango zaigu kudeaketa plan horren egitura ezagutzea.

ARLOA: Euskararen Agenda Estrategikoan jasotako lan-ildoak		KODEA: Arloaren kodea eta zenbaki korrelatiboa		
EKINTZA EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOAN				
Euskararen Agenda Estrategikoan ageri den formulazioa				
EKINTZA MARTXAN JARTZEKO ERAGILE NAGUSIAK				
EUSKO JAURLARITZAN		KANPOAN		
<ul style="list-style-type: none"> Eusko Jaurlaritzako eragileak 		<ul style="list-style-type: none"> Eusko Jaurlaritzatik kanpoko eragileak 		
2014 urterako garapena				
Zeregina		Betetze erakuslea	Arduraduna	%
Kodea	Formulazioa	Nola neurtuko den zeregina betetzen ari den edo ez	Zein zuzendaritza arduratuko den	Urtean zenbat egingo den
2015 urterako garapena				
Zeregina		Betetze erakuslea	Arduraduna	%
2016 urterako garapena				
Zeregina		Betetze erakuslea	Arduraduna	%

2. TAULA: Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016). Kudeaketa Planaren egitura

Hasteko, arloa atalean Agendan jasotako 13 lan-ildo edo arloetako bakoitza zehaztu da: ezagutza eta erabilera, informazio eta komunikazioaren teknologiak... Ondoan, kodeak arlo bakoitzaren laburdura eta ekintza zenbakia jaso ditu: ezagutza eta erabilera > EGE, informazio eta komunikazioaren teknologiak > IKT...

Azpian, 168 ekintzetako bakoitza ekarri da gogora. Jarraian aipatu dira elkarlanean aritu diren Eusko Jaurlaritza barruko eragileak: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (HPS), Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE), Herri Ardurularitzaren Euskal Erakundea (IVAP), Etxepare Euskal Institutua, euskara atalak... zein Eusko Jaurlaritzatik kanpoko eragileak: foru aldundiak, udalak, euskaltegiak, kultur taldeak, merkataritza eta ostalaritza elkarteak...

Ekintzok gauzatzeko zeregin zehatzak xehatu dira urtez urte, hala nola, Euskaltegien finantzaketarako laguntza deialdia egitea, Bikain euskararen kalitate ziurtagiriaren ebaluazioa egin eta ziurtagiriak ematea, "Poziktibity" proiektua indartzea... Zeregin bakoitzak bere kodea darama aurretik, zeregin zenbakia.

Ekintza bakoitzaren inguruko zereginak betetzen ari diren jakiteko betetze erakusleak⁷ erabili dira: bilerarik egin den, deialdirik egin den, planik egin den, txostenik idatzi den, hitzarmenik sinatu den, sarean materialik jarri den... Horiek emango digute ekintzen betetze mailaren irudia.

Zeregin bakoitzak berariazko planifikazioa izan du dagokion arduradunak bideratuta. Horrela, HPSko 3 zuzendaritzak (Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza, Euskara Sustatzeko Zuzendaritza eta Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza) eta HABEko zuzendaritza izan dira arduradun nagusiak.

Era berean, ehunekotan zehaztu da zeregin bakoitzaren urteko lorpena (%): batzuk urtean bertan hasi eta amaituko dira (%100 beteko dira); beste batzuek urte batean hasi (%75, %50, %40...) eta hurrengoan ere jarraipena izango dute (%25, %50, %60...).

⁷ Beraz, bi adierazle mota ditugu: batetik, *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)* egitasmoan jasotako 38 adierazleak, helburuen betetze maila neurtu eta landutako arloen garapenaren irudia emango digutenak; bestetik, *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)*. *Kudeaketa* Planean jasotako betetze erakusleak, ekintza eta zeregin bakoitzaren betetze maila erakutsiko dutenak.

Agendaren kudeaketari eta jarraipenari begira, honako 2 batzorde hauek eratu dira⁸:

- **Batzorde Eragilea**, Agendaren ildo, ekimen eta ekintza nagusiak abian jartzeko eta kudeatzeko.
Osaera: HPS (batzordeburua), HABE, Etxepare Euskal Institutua, Kultura Sailburuordetza, Hezkuntza Sailburuordetza, IVAPeko Euskara Zuzendariordeak.
- **Jarraipen Batzorde Orokorra**, Agendaren ildo, ekimen eta ekintza guztien ikuspegi orokorra, sail guztietakoa, jasotzeko eta horren jarraipena egiteko.
Osaera: HPS (batzordeburua), HABE, Etxepare Euskal Institutua, Kultura Sailburuordetza, Hezkuntza Sailburuordetza, IVAPeko Euskara Zuzendariordeak, Jaurlaritzaren sailetako Euskara Atalak, Osakidetza, EITB, Ertzaintza.

Batzorde Eragilea behar denean biltzen da: gutxienez urte bakoitzaren azken hiru hilabetekoaren hasieran, hurrengo urtean abian jarri eta kudeatu beharreko ekintzak zehazteko. Era berean, **Jarraipen Batzorde Orokorra** behar denean biltzen da: gutxienez urtean behin; 2014ko eta 2015eko amaieran, Agendaren tarteko jarraipena egiteko, eta 2016ko amaieran Agendaren betetze mailaren ebaluazioa egiteko.

⁸ Horiez gain, berariazko Erabilera Plan bakoitzak -Eusko Jaurlaritza, Justizia Administrazioa, Osakidetza eta Ertzaintza- bere Jarraipen Batzordea du, HPSrekin koordinatua.

4. AZTERKETA

Lan honen asmo nagusia egikaritzeko, azterketa 5 azpiataletan egituratu dugu.


Lehenengo azpiatalean *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)* proiektuaren eduki nagusiak adierazi ditugu. Hortik aurrera, *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016). Kudeaketa Plana* izan dugu begi aurrean atalez atal. Horrela bada, bigarren azpiatalean, Agendan jasotako edukiei begira egindako 2014ko kudeaketa plana zehaztu dugu. Hirugarren azpiatalean, 2014ko kudeaketa planaren jarraipen txostenak agerian utzitakoa ikertu dugu. Laugarren azpiatalean, 2015eko kudeaketa plana jaso dugu. Azkenik, bosgarren azpiatalean 2015eko kudeaketa planaren jarraipena egin dugu, ahal izan den neurrian behintzat.

<i>Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)</i>	{ 13 lan-ildo 34 ekimen 168 ekintza
<i>Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016). Kudeaketa Plana</i>	{ 2014ko kudeaketa plana 2014ko kudeaketa planaren jarraipen txostena 2015eko kudeaketa plana 2015eko kudeaketa planaren jarraipena

3. TAULA: Azterketaren egitura

4.1. EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOA (2013-2016). LAN-ILDOAK

Jarraian *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)* osatzen duten 13 lan-ildo edo arloen edukiak laburbildu ditugu, bakoitzaren helburu nagusia gogoan izanda, proiektuaren nondik norakoa hobeto irudikatu ahal izateko.



4. TAULA: *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016). Lan-ildoak*

1.- EZAGUTZA ETA ERABILERA

Edukia: 2 ekimen; 28 ekintza ezagutza arloan eta 33 ekintza erabilera arloan.

Helburua: euskararen ezagutza eta erabilera indartzea, batez ere ondorengo belaunaldietan, euskararen ezagutza handitzeak eta erabilera normalizatzeak hizkuntza aukeren berdintasuna errealitate bihurtzen lagun dezan.

1.- EUSKARAREN GAITASUNA ETA ERABILERA

Gizarte elebiduna sustatzea eta, eguneroko bizitzan txertatuz, euskara gaurko eta etorkizuneko hizkuntza izan dadin bermatzea, era progresiboan eta orekatuan, egun bere ez dituen esparruetara eta pertsonengana zabalduz eta haiek euskarara erakarriz.

1. Herritarren artean euskal hiztunen kopurua handitzen jarraitzea, hezkuntza sistemaren, helduen euskalduntze sistemaren eta familia transmisioaren bitartez.
2. Euskararen gizarte erabilera aurreratzen jarraitzea, esparru formaletan eta, batez ere, ez formaletan.

Gaitasunaren arloan:

1. Euskara ardatz duen hezkuntza sistema eleaniztun batean ikasleek, ahoz eta idatziz, bizitzaren alor desberdinetan, bi hizkuntza ofizialak era egokian eta eraginkorrean erabiltzeko gaitasuna bermatzea.
2. Euskararen ezagutza bizitza osorako ikaskuntzaren markoan txertatzea.
3. Eskola material, IKT baliabide eta testuliburuaren hizkuntzaren kalitatea zaintzea.
4. Irakasleen euskararen ezagutza maila eta euskarazko konpetentzia komunikatiboak hobetzeko hasierako eta etengabeko prestakuntza eskaintzea IRALERen bitartez.
5. Euskara (eta beste hizkuntzetako) irakasleak trebatzea hizkuntzen didaktikan egindako azken bilakaeretan, bai hasierako prestakuntzan bai eta etengabekoan ere.
6. Irakasleen etengabeko prestakuntza orokorra euskaraz egiteko eskaintza bermatzea "Prest Gara" programaren bitartez.
7. Ikasleen hizkuntza egoeratik abiatu, hau da, kontuan izanik gehiengo bat 2. edo 3. hizkuntzan ari dela beste arloetako ezaguerak jasotzen, didaktikak eta ikuspegiak egokitzea.
8. Unibertsitateaz aurretiko irakaskuntzaren ibilbidean, gutxienez bi unetan ikasleen hizkuntza gaitasuna neurtuko duen sistema garatzea.
9. Lanbide heziketan euskarazko eskaintza zabaltzea, bai euskarazko lerroa indartuz, bai eta B ereduaren abiarazteko plangintza eginez.
10. Graduon ikasketetan, hautazko eta derrigorrezko irakasgaiak euskaraz egiteko aukera zabaltzea, betiere eskaintzaren bikoiztasunak saihestuz.
11. Graduondoko eskaintzetan euskararen presentzia ziurtatzea.
12. Unibertsitatean euskarazko ikasketak indartzea, irakasleen prestakuntza hobetuz eta ikasmaterialak eskainiz.
13. Batxilergoan euskarazko eskaintza zabaltzea, bai euskarazko lerroa indartuz, bai eta B ereduaren abiarazteko plangintza eginez.
14. Helduen euskalduntzearen sarea sendotuz, herritar elebidunen kopurua handitzeko eta oinarriko euskararen ezagutza ahalik eta gehien orokortzeko bidea egitea.
15. Helduen euskalduntzearen arloko ikasprozesua azkartzeko neurriak hartzea.
16. HABE, LANBIDE, udal, udal euskaltegi, euskaltegi pribatu homologatu, Hizkuntza Eskola Ofizial, IRALE, IVAP eta esparruko gainerako agente publiko eta pribatuen arteko osagarritasuna aztertu eta sendotzea.

17. Finantzaketa egonkorrarekin loturik, euskalduntze prozesuan aldatzen doazen premiei malgutasunez erantzuteko sistema bat eratzea.
18. Barnetegiaren berezitasuna kontuan harturik, finantzaketa sistema egoki bat eratzea.
19. Helduen euskalduntze sarean HEOCa berritzea, gaitasun helburu mailakatu zehatzagoak ezartzeko, eta ikasprozesuak azkartzeko eta hobetzeko.
20. Helduen euskalduntze sarean ikasmaterial, bitarteko eta antolamendu aurreratuak bultzatzea, hobekuntza etengabea sustatzeko.
21. Helduen euskalduntzeko euskaltegien sare-egiturak sendotzea, gizartearen beharrei ahalik eta ondoen erantzun ahal izateko.
22. Euskara egiaztatze sistema duten erakunde eta organoen arteko elkarlana estutzea, deialdiak eta prozesuak koordinatzeko eta sistema bateratura urratsak egiteko.
23. Euskaltegien sarean oinarritzko A1 eta A2 mailak ere ezartzea eta egiaztatzea, eta ikasleen diru-laguntzetarako kontuan hartzea.
24. Egungo euskalduntze curriculumak Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitzea, eta Markoa Bateratua bera euskarara egokitzea.
25. Azterketen sistema eta ereduak hobetzeko gogoeta bideratu eta ondorioak aplikatzea.
26. Euskara irakasle-tutoreen berariazko formazioa behar eta metodologia berrietara egokitu eta hedatzea.
27. Helduak euskalduntzeko alorreko materialak, metodoak eta baliabideak etengabe eguneratzea.
28. Bizialdi osoko ikaskuntzaren lege-esparruan, euskara ikasteko ikastaroak diseinatu eta eskaintzea.

Erabileraren arloan:

29. Euskararen erabilera sozialerako aukerak areagotzea eta lehentasuna jarriz aisialdi esparruko jardueretan.
30. Gazteen harreman eta komunikazio esparruetan (kulturan, musikan, kirolean...) eta bitartekoetan (IKTetan, sarean...) euskararen presentzia handitu dadin sustatzea.
31. Lan munduan euskararen erabilera sustatzea.
32. Euskarazko hedabideak sustatzea eta hedabide guztietan euskararen erabilera bultzatzea.
33. Eskolaratze garaian lehen hizkuntza euskara duten talde eta guneeetan eredu didaktiko eta metodologikoak egokitzea.
34. Euskara hezkuntzaren ingurune ele anitzekoan erabiltzeko estrategiak definitu eta praktikara eramatea.
35. Ikastetxe bakoitzean hizkuntzaren irakaskuntza eta erabilera uztartuko dituen jarduera plangintza egitea, hau da, hizkuntza proiektua egitea.
36. Hezkuntza esparruaren eta gizarte, aisia eta kultur taldeekiko loturak sendotzea.
37. Hezkuntza esparruaren eta lan munduarekiko zubiak eraikitzea, euskarazko praktikak areagotuz eta lankidetzaren proiektuak bultzatuz.
38. Euskarabidearekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin lankidetzaren sustatzea, euskararen lurraldeen arteko elkarlana bermatzeko.
39. Mintzapraktika egitasmoak (Mintzalagun, Berbalagun, Gurasolagun) zabaltzea.
40. Enpresetan euskararen erabilera planen ezarpena bultzatzea, LanHitz egitasmoa garatuz.
41. Enpresen euskara planetara bideratzen diren diru-laguntzen inguruko herri-aginteen koordinazioa indartu eta hobetzea.
42. Arlo sozioekonomikoarentzako diru-laguntza lerroetan hizkuntza irizpideak txertatzea.
43. Lan eta enpresa munduko eragileen arteko elkarlana sustatzea.
44. Ekintzaileei zuzendutako diru-laguntzetan eta programetan hizkuntza irizpideak txertatzea.
45. Lanbide heziketako eta unibertsitateko ikasleek lan mundura hurbiltzean egin ohi dituzten praktikak euskaraz ere egiteko aukera izan dezaten bultzatzea.
46. Bizialdi osoko ikaskuntzaren lege-esparruan langabeentzat eskainiko den prestakuntza euskaraz ere jasotzeko aukera bermatzea.
47. Begiraleen eskoletan euskarazko adarra bermatzea, eta arlo horretan eskarmentua dutenekin euskara integratzeko lagungarri izan daitezkeen ekimen berritzaileak adostu eta lantzea.

48. Aisialdiko begiraleen kontratazioan eta aisialdiko ekimenetara bideratzen diren diru-laguntzetan hizkuntza irizpideak txertatzea.
49. Euskal Autonomia Erkidegoko nahiz lurraldeetako federazioetako jardunean euskararen erabilera normalizatzeko plangintza bultzatzea.
50. Kirol eta jarduera fisikoaren alorretan euskarazko materialaren sorkuntza eta hedapena sustatzea.
51. Kirol entrenatzaileak euskaraz trebatzeko eta horientzako titulu ofizial eta ez-ofizialak euskaraz lortzeko ikastaroak sustatzea.
52. Kirol eta hizkuntza normalizazio eragileen arteko komunikazioa, artikulazioa eta koordinazioa hobetzea, batez ere eskola kirolean eta kirol federatuan.
53. Haur eta gazteei begirako produktuen euskarri berriak sustatzea.
54. Hedabideen arloan etorkizuna aurreikusteko eta gertuko eta mundu zabaleko esperientziak ezagutarazteko jarduerak bideratzea eta bidean dauden esperientziak baliatzea.
55. Hedabideetako euskarazko edukien audientzia-azterketa kualitatiboa egitea.
56. Ikus-entzunezko euskarazko hedabideei buruzko ikerketa kualitatiboa egitea.
57. Ikus-entzunezkoen eskaintza globala osatzeko urratsak egiten jarraitzea.
58. Euskal hedabideen sektore publiko eta pribatuaren arteko elkarlana sustatzea.
59. Garapen teknologikoarekin batera herritarren parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzen dituzten komunikazio proiektu globalak edo multimedia sustatzea.
60. Hedabideen arteko elkarlan-egitasmoak bultzatzea, haien bideragarritasuna indartzeko eta gizarte-eragina handitzeari begira.
61. Ikus-entzunezko eta paperezko hedabideetan zein komunikabide digitaletan euskararen presentzia gehitzeko neurriak abian jartzea.

2.- ARNASGUNEAK

Edukia: ekimen 1; 5 ekintza.

Helburua: euskara bizien duten gunek -geografikoak (gune euskaldunak...) zein funtzionalak (eskola, udalekuak...)- definitu eta sustatzea, euskaraz bizitzeko eredugarriak izan daitezen.

2.- ARNASGUNE GEOGRAFIKOAK

Euskara ohiko hizkuntza den esparru geografikoak: euskararen aberastasunean, bizitasunean eta komunikazio ahalmenean duten eredugarritasuna ziurtatzea eta sendotzea, eta gainerako gunetara eramaten saiatzea.

3. Herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskaldunenak diren gune geografikoetan euskara udalerriko gizarte bizitza eta herritarren arteko harremanetarako ohiko hizkuntza funtzionala izan dadin ekimenak sustatzea.

62. Herri horietan administrazioak euskaraz normaltasunez funtziona dezan bultzatzea, betiere herritar guztien hizkuntza eskubiderik urratu gabe.

63. Herri horietan, herritar euskaldunek administrazioarekiko harremanetan euskara era naturalean erabil dezaten ekintzak sustatzea.

64. Herri horietan euskararen erabilera planak diseinatu eta garatzeko laguntza ematea.

65. Herri horietan gizarte izaerako zerbitzuek (osasun, mendekotasun, hezkuntza... zerbitzuek) euskaraz normaltasunez funtziona dezaten sustatzea, betiere herritar guztien hizkuntza eskubideak urratu gabe.

66. Herri horietan merkataritzan eta lan munduan euskara era naturalean erabil dadin ekintzak sustatzea.

3.- FAMILIAK

Edukia: 4 ekimen; 8 ekintza.

Helburua: familia bidezko transmisioa zaindu eta indartzea, galerak eteteko eta irabaziak bizkortzeko.

3.- FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

Euskara ahalik eta modurik naturalenean jaso eta erabili dadin familia bidezko transmisioak duen garrantzia ezagutaraztea –batez ere bikote mistoei–, eta laguntza eta baliabideak eskaintzea hartara motibatzeko.

4. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea.
5. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea.
6. Transmisioaren inguruko informazioa jasotzea, egungo egoera ezagutu eta orain arte burututako ekimenen arrakasta neurtzeko.
7. Guraso euskaldun berriek euskararen familia bidezko transmisioa berma dezaten sentsibilizazio lana egitea.

67. Herritarren artean euskara erabiltzearen aldeko jarrera lantzea.
68. Eleaniztasunaren onurak azaltzea.
69. Euskararen erabilerarako dauden sozializazio guneak baliatzea eta berriak sortzea.
70. Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea.
71. Gurasoek euren hizkuntza ohiturek seme-alaben hizkuntza portaeran duten eraginaz ohartaraztea eta seme-alabekiko jokabidea lantzea, bikote euskaldun nahiz mistoetan.
72. Eskolatik kanpo zein eskolan bertan ere gurasoek eta umeek euskara erabiltzeko guneak sortzea eta elikatzea.
73. Familia, eskola eta ingurunearen arteko interakzioa sendotzea, gurasoei horretarako baliabideak eskainiz.
74. Haur zaintzan diharduten erdaldunekin euren eginkizunetarako oinarrizko hizkuntza gaitasuna lortzeko baliabideak sustatzea.

4.- HIRI HANDIETAKO EUSKARAREN ERABILERA

Edukia: 2 ekimen; 8 ekintza.

Helburua: hirietan euskararen presentzia modu naturalean gerta dadin lantzea, gaur egun euskaldun kopuru handiena hiri giroan murgiltzen delako.

4.- HIRI HANDIAK

Hiztun kopuruagatik euskararen etorkizunerako gako diren gunetan esfortzu berezia egitea, hizkuntzaren erabilera indartuz, bereziki esparru ludikoan.

8. Kirolaren, artearen, kulturaren... arloetan euskara ohiko hizkuntza izango dela bermatzeko gunek sustatzea.
9. Hizkuntza paisaian euskararen presentzia areagotzeko neurriak bultzatzea.
75. ESEPekeko diru-laguntzak paisaia euskalduntzeko neurriak martxan jartzearekin uztartzea.
76. ESEPekeko diru-laguntzetan tokian tokiko hizkuntza politikan euskararen presentzia areagotzeko neurriak hartzea zaindu, ume, nerabe eta gazteei arreta berezia eskainiz.
77. Emakida publikoko zerbitzuetan hizkuntza irizpideak txertatzea, bereziki haur eta gazteei zuzendutako zerbitzuetan (hezkuntza garraio, aisialdia...) arreta elebiduna bermatuz.
78. Zerbitzu publikoetan euskararen erabilera sustatzea, tokian tokiko sozietate publikoetan euskara plana egiteko bultzada ematen.
79. Merkataritza eta ostalaritza alorretan oinarrizko euskarazko gaitasun ikastaroak eskaintzea.
80. Merkataritza eta ostalaritza sektoreetan eragitea herritarren hautura egokitzeko.
81. Traktoreak diren merkataritza gunetan euskararen presentzia areagotzeko proiektu pilotuak egitea.
82. Umeen jolasguneetan euskarazko jarduerak ohikotasunez bultzatzea.

5.- ELEBITASUN PASIBOA: EUSKALDUN HARTZAILEAK

Edukia: 3 ekimen; 10 ekintza.

Helburua: euskararen mundura ahalik eta pertsona gehien erakartzea; elebakarren multzoa gutxitzea eta elebidun pasiboen multzoa areagotzea, euskara inorentzat arrotz izan ez dadin, edozein mailatako gaitasuna eskuratzen duen ororen jarrera eta ahalegina txalotuz

5.- ELEBITASUN PASIBOA: EUSKALDUN HARTZAILEAK

Euskaraz ez dakiten pertsonak euskarara erakartzen ahalegintzea, elebitasun pasiboa eta oinarrizko ezagutza sustatuz eta baita euskara eta euskal mundua ezagutaraziz eta elkarbizitzarekin lotuz ere.

10. Herritar elebakar helduen artean elebidun pasiboen kopurua areagotzea, euskara arrotz eta ezezagun duen herritar kopurua gutxitzearen.
11. Elebitasun pasiboaren balioa nabarmenaraztea, euskara erabiltzeko aukerak ugaritzeko eta euskararen erabilera sozialaren zabalkunderako.
12. Euskaraz ez dakitenengan euskararen erabilerarekiko jarrera positiboa areagotzea.

83. Euskararen oinarrizko ezagutzaren balioa aitortzea, eta maila hori lortzeko aukerak zabaltzea.
84. Oinarrizko euskarazko A1 eta A2 mailak ezartzea eta egiaztatzea, eta ikasleen dirulaguntzetarako kontuan hartzea.
85. Euskara ikasteko sentsibilizazioa lantzen eta garatzen jarraitzea.
86. Elebitasuna eta elkarbizitza lotuko dituzten mezuak eta ekimenak sustatzea, besteak beste, elebitasunaren balioak gizarteratzeko jarduerak bultzatuz.
87. Helduentzako prestakuntza antolatzen dutenei eragitea (autoeskolak, jubilatutako elkarteak, kultur elkarteak, merkataritza elkarteak), ikastaroak euskaraz ere antola ditzaten.
88. Euskaldun hartzaileen kopurua handitzeko eta haien arreta erakartzeko bideak erraztea, euskarazko kultur ekoizpenaren bidez, komunikagarritasuna bermatuz eta euskarazko zerbitzu eta produktu erakargarrien eskaintza bultzatuz (familiei, helduei, gazteei...).
89. Elebakarren euskararekiko pertzepzio, iritzi eta jarrerari eragingo dien ekimenak sustatzea.
90. Eskola eta familiaren arteko sinergia aprobetxatzea, gurasoen eta seme-alaben harremanez baliatuz.
91. Euskararen aldeko jarrera asertiboak bultzatzea euskaldun hartzaileen artean.
92. Euskara erabiltzeko jarrera asertiboak sustatzea euskaldunen artean.

6.- KULTUR KONTSUMOA

Edukia: 4 ekimen; 8 ekintza.

Helburua: euskarazko sorkuntza (kalitatezkoa) eta kontsumoa aztertzea eta biak indartzea kontsumitzaileen nahiei erantzuten saiatzeko.

6.- KULTUR KONTSUMOA

Kultura euskaraz kontsumitzea sustatzea, batetik euskarazko sorkuntza bultzatuz eta, bestetik, erdarazko produktuak itzuli eta lokalizatuz. Horretarako hainbat aldagai kontuan izan eta guztien arteko oreka aurkitzen saiatzea: kalitatea, aberastasuna, dibertsitatea, hartzaile potentzialen kopurua eta nolakotasuna, besteak beste.

13. Kalitatea etengabe indartzea, euskarazko kultur ekoizpenaren esparru guztietan.
 14. Euskal kultur industriren lehiakortasuna sendotzea, eskaintza euskarazko kultur merkatuen beharizan eta apetetara eta merkatu horien neurrietara etengabe egokituz.
 15. Euskarazko kultur sorkuntzaren prestigio soziala indartzea.
 16. Euskarazko kultur ekoizpenaren ikusgarritasuna areagotzea, inguru analogiko nahiz digitaletan.
93. Euskarazko liburugintzaren sektoreko eragileekin elkarlanean (idazleak, itzultzaileak, argitaletxeak, liburu-dendariak), irakurzaletasunaren eta euskarazko liburuaren eskaintza eta kontsumoaren bilakaera aztertu ondoren, irakurzaletasuna eta kontsumoa areagotzeko ekimenak gauzatzea, eskaintzaren egokitasuna eta kalitatea zainduz, kontuan izanik, betiere, euskarazko irakurlearen apetak asebetetzeko bertan sortutako eta euskaraturiko liburuak, biak ala biak, direla ezinbestekoak.
 94. Liburutegi publikoetan zein bestelako irakurketa-guneetan irakurzaletasuna dinamizatzeko jarduerak sustatzea, bereziki haur eta gazteei zuzendutakoak.
 95. Hedabideetan irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak indartzea, eta liburuaren publizitateari erraztasun ekonomikoak ematea. Erdara nagusi den hedabideetan, bestalde, euskarazko literatur ekoizpenaren berri ere ematea.
 96. Paperez besteko euskarrietan argitaraturiko euskarazko liburuen (liburu elektronikoak, audioliburuak, bideo-liburuak...) ekoizpena eta kontsumoa sustatzea, besteak beste, euskarri horietan argitaraturiko euskarazko liburu eta argitalpenen katalogo bateratu eta publikoa osatuz, eta liburu elektronikoetan euskarazko hiztegiak integratzeko behar diren prozesuak erraztuz.
 97. Euskarazko sorkuntza eta sortzaileak zirkuitu eta merkatuetan sartzen erraztea, sorkuntza alor ezberdinen izaera eta berezitasunen arabera, eta euskarazko sorkuntza eta sortzaileen lana hedatzeko, aitortzeko eta prestigiatzeko ekimenak bideratu edota sendotzea (sariak, lehiaketak, erakusketak, jaialdiak...).
 98. Euskarazko kultura ekoizpena eta kontsumoa bultzatzeko, euskarri guztietako hedabide publiko zein pribatuen bidez gizarteratuko diren komunikazio ekintzak indartzea, bereziki zainduz sareko kultura agenda erakargarri eta behar bezala eguneratu baten erreferentzialtasuna, askotariko erakunde eta eragileen arteko lankidetzan.
 99. Atzerriko hizkuntzetan ekoiztutako puntako eta kalitatezko zinea telebistan euskaraz azpigitulaturik ikusteko aukera garatzea.
 100. Euskarazko kultura ekoizpenen sustapenean hedabideen rola indartzea.

7.- ETORKINENGANA HURBILTZEA

Edukia: 2 ekimen; 5 ekintza.

Helburua: etorkinak eta horien seme-alabak euskarara hurbiltzeko eta euskal kulturaz jabetzeko egitasmoak bultzatzea ahalik eta ondoen bertakotu daitezen, haiek gurera egin dezaketen ekarpena balioetsiz.

7.- ETORKINAK
Euskara eta haren munduak etorkinengana hurbilaraztea, gertutasun horren abantailaz ohartaraziz.
<p>17. Etorkinari bi hizkuntza ofizialen berri ematea eta eleaniztasunaren onuren jabe izan dadin urratsak egitea.</p> <p>18. Euskara etorkinen eskura jartzea geure gizartean integratzeko eta ezezaguna zaien eremua bistarazteko.</p>
<p>101. Kanpotik etorritako nerabeengan arreta berezia jartzea eta haietzako programa berezien garapena sustatzea.</p> <p>102. Kanpotik etorritako gurasoei informazioa eta laguntza emateko programa berezien garapena sustatzea.</p> <p>103. Etorkinak euskarara hurbiltzeko egitasmo eraginkorrak sustatzea (irakaskuntzaren, aisialdiaren zein euskalduntzearen ikuspegitik).</p> <p>104. Aisialdi-programetan bertakoen eta etorri berrien arteko elkarguneak bultzatzea.</p> <p>105. Etorri berriei bereziki zuzendutako sentsibilizazio kanpainak antolatzea, euskara ikastearen onurak nabarmenduz. Etorri berrientzako harrera programekin uztartzea.</p>

8.- KOMUNIKATZEKO ESTANDARRAK

Edukia: ekimen 1; 5 ekintza.

Helburua: euskararen komunikagarritasuna eta adierazkortasuna lantzea hizkuntzak naturaltasuna eta bizitasuna irabaz ditzan.

8.- KOMUNIKAGARRITASUNA ETA ADIERAZKORTASUNA

Euskal gizarteak gaur egun dituen komunikazio beharrak asetzeko, euskararen komunikagarritasuna eta adierazkortasuna etengabe landu eta garatzea, euskararen corpusak hiztunen esku jartzen dituen ezagutza eta baliabideen erabilera sustatuz.

19. Euskararen corpusa garatzen, berritzen eta aurreratzen jarraitzea, euskara estandarrean zein euskalkietan eta erregistro eta hizketa eredu desberdinetan euskararen zehaztasuna, bizitasuna eta adierazkortasuna aberastuz eta ahalmen komunikatiboa sendotuz.

106. Euskararen erreferentzia-corpusen garapena sustatzea, hainbat erakunde eta elkarterekin elkarlanean euskararen corpusa estandarizatzeko, modernizatzeko eta normalizatzeko lanak planifikatuz eta bultzatuz, beraien artean arreta berezia eskainiz euskararen erreferentziako corpusen proiektuei eta alorrez alorreko terminologia-lanei eta hiztegi-gintza orokorrari.

107. Euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutzea eta aberastea, hiztun berrien adierazkortasunaren mesedetan. Zuzentasunaren irizpide bakarretik komunikagarritasunarenera eta adierazkortasunarenera igarotzea.

108. Euskaldun berrientzako material irakurgai moldatu eta mailakatuak sortu eta merkatura daitezen sustatzea.

109. Terminologia-lana ahalik eta eremu gehienetara hedatzea, Terminologia Batzorde-atal Bereziaren baitan urteko jarduera-planak eginez, lehentasunak finkatuz, glosario terminologikoak prestatuz eta onartuz, onartutako terminologiaren zabalkundeak eginez.

110. Gazteen hizkerari arreta berezia eskaintzea, horretarako ekimen zehatzak bultzatuz (eremu digitaleko komunikazio erregistroak, hizkuntza erregistroen araberako esamoldeak lantzeko egitasmoak, idazlan-lehiaketak, komiki-lehiaketak, etab.).

9.- HIZKUNTZA ESKUBIDEAK

Edukia: 3 ekimen; 15 ekintza.

Helburua: herritarrek aukeratutako hizkuntza -euskara edo gaztelania- erabiltzeko eskubidea errespetatzea eta bideratzea, guztien hizkuntza eskubideak errespetatzea daitezen.

9.- HIZKUNTZA ESKUBIDEAK

Legeriak herritarrei aitorturiko hizkuntza eskubideak progresiboki bermatzeko neurriak hartzea, eta, bereziki, Administrazioarekiko harremanetan herritarrek euskara nahiz gaztelania erabili eta artatuak izateko duten eskubidea bermatzea, betiere euskara zerbitzu hizkuntza nahiz lan hizkuntza legez gero eta hedadura handiagoan erabiliz.

20. Herritarren hizkuntza eskubideak eraginkortasunez bermatzeko urratsak egitea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean, osasun zerbitzuetan, segurtasun zerbitzuetan eta justizia administrazioan. EAEko gainerako administrazioetan herritarren hizkuntza eskubideak eraginkortasunez bermatzeko jarraibideak ematea.

21. Gainerako zerbitzu publikoetan eta, oro har, gizarte bizitzako arlo guztietan euskara erabiltzeko aukerak bermatzea, bereziki hezkuntzan, hedabideetan eta kontsumoaren esparruan.

22. Herritarrei beren hizkuntza eskubideak baliatzeko babesa ematea.

111. Elebideren jarduera sendotzea.

112. Arartekoaren eta Elebideren arteko lankidetzaren hizkuntza eskubideak indartzeko.

113. Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia garatzea.

114. Eusko Jaurlaritzan euskara lan hizkuntza izan dadin ekimen zehatzak bultzatzea ("Aldahitz" programa, iraupen laburreko ikastaroa, gaitasun ikastaroak...).

115. Eusko Jaurlaritzaren arau-jardunean aginduzko hizkuntza-txostenak egitea, haien legezotasuna eta eragina hizkuntzaren ikuspegitik bermatzeko.

116. Justizia Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana garatzea.

117. Auzia Euskaraz proiektua bultzatzea:

- Eragile juridiko bakoitzak bere eragin eremuan gai judizialean euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak batu, koordinatu eta antolatze lantalde edo batzordeak sortzea.
- Talde horietan egiten denaren, eta Justizia Administrazioak egindakoaren edo egingo duenaren berri zabaltzea eta komunikatzea bakoitzak bere eragin-eremuan.
- Arlo juridikoan diharduten profesional euskaldunen sareak sortzea
- Eusko Jaurlaritzako eta, zehazki, Epaibi Hizkuntza Normalizazioko lantaldeko ordezkariak koordinatutako ekintza eraginkorrak bultzatzea.

118. Ertzaintzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko I. Plana onartu eta garatzea.

119. Osakidetzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko II. Plana (2013-2019) garatzea.

120. Irakaskuntza edozein hizkuntza ofizialetan jasotzea bermatzea.

121. Herritarrek informazioa eta edukiak paperean inprimatutako hedabideez, irrati-telebistez eta Internetez jasotzeko eskubidea sendotzea.

122. Beste administrazioetako euskararen erabilera planen garapenerako irizpideak ematea, eta jarraipena egitea erakunde arteko elkarlana sustatuz.

123. Kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak babestea.

124. Gizarte arlo ezberdinetan (kulturgintza, arlo sozioekonomikoa...) euskara erabiltzeko aukerak sustatzea.

125. Plataforma digitaletan administrazioaren komunikazioa lantzea euskaraz ere, hizkera argia eta komunikagarritasuna bultzatuz.

10.- EUSKARAZKO JARDUNAREN ERAKARGARRITASUNA ETA PRESTIGIOA

Edukia: 3 ekimen; 8 ekintza.

Helburua: euskararekin irudi erakargarriak (hizkuntza baliagarria, komunikaziorako egokia, aberasgarria...) sortu eta zabaltzea euskarazko jardunak prestigioa irabaz dezan.

10.- ERAKARGARRITASUNA ETA PRESTIGIOA

Euskararen erakargarritasuna lantzea eta hedatzea, euskararen irudiari prestigioa ematea eta euskararekiko identitate askotarikoak bultzatzea.

- 23. Euskararekiko atxikimendua eta euskararen erabilera bultzatzea sentiberatze programen bitartez.
- 24. Gizarte bizitzaren alor guztietan, bereziki lan munduan, kirolean, kulturean eta komunikazioan euskararen erabileraren prestigioa indartzea.
- 25. Euskara euskal gizartearen kohesiorako osagai legez hartua izatea.
- 126. Preskriptore ezagun eta erreferente direnen eskutik, euskararen aldeko jarrera eta erabilera sustatzea.
- 127. BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiria garatzen jarraitzea, hizkuntza kudeaketak kalitate prozesuarekin duen lotura gizarteratuz.
- 128. Sustapen eta komunikazio ekintzak lantzea (kanpainak, esku-orriak, bisitak, hitzaldiak) hizkuntza kudeaketa egoki batek dakartzan onurak nabarmentzeko eta euskara kalitatearekin, lehiakortasunarekin eta ongizatearekin identifikatzeko.
- 129. Euskara gazteen harremanetan hizkuntza bizi eta erabiliagoa izan dadin komunikazio ekintzak sustatzea.
- 130. Erreferentziazko euskarazko kultur sortzaileen irudia gazteek erabiltzen dituzten komunikazio zirkuituetara proiektatzea.
- 131. Kirol ekitaldi garrantzitsuenetan euskara ere komunikazio hizkuntza ohikoa izan dadin neurriak bultzatzea.
- 132. Kirolari profesionalekin eta haien klub eta enpresekin akordioak lortzea, ohiko komunikazioan euskara ere erabil dezaten.
- 133. Elebitasunaren balioak gizarteratzeko ekimenak sustatzea.

11.- INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Edukia: 4 ekimen; 20 ekintza.

Helburua: euskara teknologia berrien esparruan lantzea etorkizunerako komunikazio tresna izan dadin.

11.- INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Informazio eta komunikazioaren teknologiak -hizkuntza teknologiak barne- euskararen garapenerako baliatzea, horretarako bideratutako ekimenak sendotuz.

- 26. Euskarazko baliabide teknologikoen gaineko informazioa bateratu eta zabaltzea.
- 27. INTERNETen euskarazko edukiak sustatzea.
- 28. Euskarazko tresnak sortu eta sustatzea.
- 29. .eus domeinu orokorraren garapena sustatzea.

- 134. Hizkuntzen industria indartzeko egitasmoak bultzatzea.
- 135. Aisialdirako sareko euskarazko edukiak gehitzea.
- 136. Komunikazioa bultzatzeko gizarte sare birtual euskaldunak sustatzea.
- 137. Erabilera gero eta handiagoa duten gailu teknologiko berrietara egokitutako aisialdi aplikazioak sortzen laguntzea.
- 138. Bideo-jokoen alorrean eragitea, euskarazko produktuak ere ekoiztu eta hedatu daitezen.
- 139. IKTetan eta sarean euskararen erabilerari bultzada emango dioten berrikuntzak propio asmatu eta garatzea sustatzea.
- 140. Merkatuan agertzen diren berrikuntza arrakastatsuenak ahalik eta azkarren lokalizatzea euskarara.
- 141. IKT inbentarioa etengabe eguneratzea.
- 142. Sarean informazio gune iraunkorra eguneratuta mantentzea.
- 143. Azterlanak bultzatzea: euskarazko tresnen presentzia, erabilera eta posizionamendua neurtzeko.
- 144. Euskal Wikipedia (EW) sustatzea edukiak txertatuz; EWren kokapena aprobeztatzea euskarazko edukietarako sarbide gisa, EWn erreferentzia eta lotura egokiz elikatzea, ikastetxeetan eta unibertsitateetan EWrao artikulua sortu eta itzultzea, EWn edukiak txertatzeko lankidetzak sustatzea (zientzia, teknologia, literatura...).
- 145. Euskara ikasteko tresna berriak sarean ipintzea.
- 146. Interneteko eragile pribatu nagusiekin elkarlanerako bideak jorratzea.
- 147. Sare sozialetan euskararen presentzia areagotzeko bideak erraztea.
- 148. Euskarazko tresnak sortzen direla bermatu eta bultzatzea.
- 149. Aplikazioak euskarara lokalizatzea.
- 150. Hiztegi elektronikoak, hiztegien pluginak, corpusak, hiztegi entziklopedikoak, itzulpengintzari laguntzeko tresnak, itzultzaile automatikoa eta bestelako tresnak sarean erabiltzaileen eskura jartzen jarraitzea.
- 151. Itzulpen automatikorako tresnak sortzea eta garatzea.
- 152. Euskarazko zuzentzaile ortografikoak etengabe hobetu eta softwareen bertsio berrietara egokitzea sustatzea, ofimatika produktuetan, nabigatzaileetan, edizio-tresnetan eta gainerakoetan.
- 153. .eus domeinua ahalik eta esparru gehienetan erabil dadin neurriak hartzea.

12.- HIZKUNTZA POLITIKAREN INGURUKO AKORDIOA

Edukia: ekimen 1; 2 ekintza.

Helburua: euskara indarberitzearen inguruko hizkuntza politikaren inguruko adostasun sozial eta politikoa sendotzea (herritarrekin, erakunde publikoekin, eragile sozial, ekonomiko eta politikoekin...) elebitasuna eta hizkuntza elkarbizitza bultzatzeko.

12.- HIZKUNTZA POLITIKAREN INGURUAN AKORDIOA**Hizkuntza politikaren inguruko adostasun sozial eta politikoa sendotzea.**

30. Euskararen erabilera areagotzearen aldeko diskurtso erakargarri eta integratzailea ekoiztea, euskal gizarteko sentsibilitate ezberdinek bere egingo dutena, ondorengo helburu bateratzailearen alde: ekitatea eta inklusioa jomugan dituen elebitasun orekatu eta iraunkorra.

154. Euskararen gaineko diskurtsoak kontrastatu, eta oinarritzko diskurtso bateratzailea adostu eta gizarteratzea.

155. Euskarari eta hizkuntza bizikidetzari buruz herritarrek dituzten jarrera eta motibazioen azterketa, besteak beste hizkuntza erabileretan faktore subjektiboek duten eragina eta hauek faktore objektiboekin duten lotura kontuan hartuz.

13.- KANPO PROIEKZIOA

Edukia: 4 ekimen, 13 ekintza.

Helburua: euskara ezagutaraztea Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo, euskarak ere lekua izan dezan munduko hizkuntzen artean.

13.- KANPO PROIEKZIOA
Euskararen hedapena bultzatzea EAetik kanpo.
<p>31. Euskararen lekua eraikitzea munduko hizkuntzen artean.</p> <p>32. Euskararen gainerako lurraldeetako erakundeekiko elkarlana sendotzea.</p> <p>33. Espainiar estatuko hizkuntza aniztasuna sustatzea.</p> <p>34. Euskararen lurraldeen gertuko ingurunean hizkuntzen nazioarteko proiektzioan diharduten erakundeekin lankidetzatza sustatzea (Institut Ramon Llull, Xunta de Galicia, Instituto Cervantes, Instituto Camoes...).</p>
<p>156. Euskarak Europako eta munduko hizkuntza aniztasunari egiten dion ekarpena erakusteko, eta euskarak munduan dituen zirkuituak ezagutarazteko komunikazio-ekintzak diseinatu eta gauzatzea.</p> <p>157. Eremu ertain edo urriko hizkuntzak dituzten beste lurralde batzuetako esperientziak eta praktika onak aztertzea.</p> <p>158. Munduan zehar dauden Euskal Etxeetan euskararen ikaskuntza sustatzea.</p> <p>159. Munduko unibertsitateetan euskara eta euskal kulturako irakurleagoak eta katedrak hedatzea.</p> <p>160. Euskara gaitasunaren egiaztagiriak eskuratzeko probak antolatzea euskal eremutik kanpo.</p> <p>161. Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoarekin eta Nafarroako Gobernuarekin hitzarmenak garatzea, eta hango euskararen sustatzaileen jarduna laguntzea.</p> <p>162. Galiziako Xuntarekin, Kataluniako Generalitatearekin eta Balear Uharteetako Gobernuarekin sinatutako lankidetzatza hitzarmena garatzea.</p> <p>163. Europar hizkuntza aniztasunaren aldeko sareetan parte hartzea, eta Europar Batasuneko erakundeei eragitea europar hizkuntza politika eraginkor baten alde.</p> <p>164. Nazioarteko kooperazioaren esparruan kooperazio linguistikoa txertatzea.</p> <p>165. Hizkuntza aniztasuna nazioartean sustatzeko lankidetzatza hitzarmenak garatzea.</p> <p>166. Europako Hizkuntzen Industrien alorreko sare eta foroetan Euskararen Industrien presentzia eta parte hartzea sustatzea.</p> <p>167. Euskara biziberritzeko prozesuaren bilakaera eta EAeko hizkuntza politika nazioartean ezagutzera ematea, biltzar, proiektu eta abarretan parte hartuz.</p> <p>168. Europako diru-laguntzez baliatzea hizkuntzaren gaineko zeinahi arlotan ikerketa eta lankidetzatza bultzatzeko.</p>

4.2. 2014KO KUDEAKETA PLANA

Hizkuntza normalizazioan aurrera egin eta euskara indarberritzeko asmoz, *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)*. Kudeaketa Planaren baitan 2014ko kudeaketa plana garatu da: *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)* egitasmoan jasotako 13 lan-ildo edo arloak, 38 ekimenak eta 168 ekintzak aintzat hartu eta horiek bideratzeko zeregin ugari aukeratu dira. Batzorde Eragileak ontzat emana du kudeaketa plana.

Horren arabera, 2014 urteko garapenari dagokion aurreikuspenean, 168 ekintza guztietatik 133 ekintza garatzea aurreikusi da; eta ekintza horiek garatu ahal izateko, 189 zeregin zehaztu dira: deialdiak egitea, hitzarmenak sinatzea, materialak sarean jartzea... Dena den, gogoan izan behar da zeregin batzuk ekintza bati baino gehiagori lotuta daudela eta errepikatu ere egin daitezkeela.

Arloa	Ekintza guztiak	2014	
		Ekintzak	Zereginak
1.- Euskararen gaitasuna eta erabilera (EGE)	61 (1-61)	53	74
2.- Arnasgune geografikoak (ARG)	5 (62-66)	4	6
3.- Familia bidezko transmisioa (FBT)	8 (67-74)	5	7
4.- Hiri handiak (HIH)	8 (75-82)	7	8
5.- Elebitasun pasiboa edo hartzailea (EPH)	10 (83-92)	9	10
6.- Kultur kontsumoa (KUK)	8 (93-100)	4	5
7.- Etorkinak (ETO)	5 (101-105)	5	7
8.- Komunikagarritasuna eta adierazkortasuna (KOA)	5 (106-110)	3	6
9.- Hizkuntza eskubideak (HIE)	15 (111-125)	14	20
10.- Erakargarritasuna eta prestigioa (ERP)	8 (126-133)	5	6
11.- Informazio eta komunikazioaren teknologiak (IKT)	20 (134-153)	12	19
12.- Hizkuntza politikaren inguruan akordioa (HPA)	2 (154-155)	1	1
13.- Kanpo proiektzioa (KAP)	13 (156-168)	11	20
Guztira	168	133	189

5. TAULA: 2014an betetzekoak diren ekintzak eta zereginak arloz arlo

4.3. 2014KO KUDEAKETA PLANAREN JARRAIPEN TXOSTENA

Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016). Kudeaketa Plana gogoan, 2014ko kudeaketa planaren jarraipena egiteko, 2014 urtearen amaieran bilerak egin dira HPSko 3 zuzendaritzetako zuzendariekin eta HABEko zuzendariarekin. Modu horretan, bakoitzak bere eremuan egindako ekintzak eta zereginak nabarmendu ditu. Ondoren, datuak Batzorde Eragilean eta Jarraipen Batzorde Orokorrean aurkeztu dira.

2014ko kudeaketa planari lotuta, 2014 urterako garapenean, 168 ekintza guztietatik 133 ekintza garatzea aurreikusi eta azkenean 126 gauzatu dira; eta ekintza horiek garatzeko, 189 zeregin proposatu eta 182 gauzatu dira. Hortaz, 7 ekintza eta horiei dagozkien 7 zeregin ezin izan dira bete.


Arloa	Ekintza guztiak	2014			
		Ekintzak		Zereginak	
		bete bai	bete ez	bete bai	bete ez
1.- Euskararen gaitasuna eta erabilera (EGE)	61 (1-61)	46	7	67	7
2.- Arnasgune geografikoak (ARG)	5 (62-66)	4		6	
3.- Familia bidezko transmisioa (FBT)	8 (67-74)	5		7	
4.- Hiri handiak (HIH)	8 (75-82)	7		8	
5.- Elebitasun pasiboa edo hartzailea (EPH)	10 (83-92)	9		10	
6.- Kultur kontsumoa (KUK)	8 (93-100)	4		5	
7.- Etorkinak (ETO)	5 (101-105)	5		7	
8.- Komunikagarritasuna eta adierazkortasuna (KOA)	5 (106-110)	3		6	
9.- Hizkuntza eskubideak (HIE)	15 (111-125)	14		20	
10.- Erakargarritasuna eta prestigioa (ERP)	8 (126-133)	5		6	
11.- Informazio eta komunikazioaren teknologiak (IKT)	20 (134-153)	12		19	
12.- Hizkuntza politikaren inguruan akordioa (HPA)	2 (154-155)	1		1	
13.- Kanpo proiektzioa (KAP)	13 (156-168)	11		20	
Guztira	168	126	7	182	7
Aurreikusita		133		189	

6. TAULA: 2014an bete diren / bete ez diren ekintzak eta zereginak arloz arlo


2014an garatzeko aurreikusita egon arren, **1.- Ezagutza eta erabilera (EGE)** arloko 7 ekintza / zeregin ezin izan dira bete; izan ere, egiteko batzuek lehenetasuna hartu eta beste batzuk gauzatu ahal izatea mugatu dute. Hori dela eta, arazo nagusia denbora falta izan dela esan dezakegu.

Gauzatutako 182 zeregin horietatik 163ren urteko lorpena %100 izan da; urtean bertan hasi eta amaitu dira. Gainontzeko 19ak %75 edo ehuneko txikiagoan bete dira; urtean bertan hasi eta hurrengoan ere garatuko dira.

Honako bi grafiko hauetan 2. taulako datuak islatu dira, hots, 2014an bete diren ekintzak eta zereginak arloz arlo:



1. GRAFIKOA: 2014an bete diren ekintzak arloz arlo



2. GRAFIKOA: 2014an bete diren zereginak arloz arlo

6.- Kultur kontsumoa (KUK) eta 12.- Hizkuntza politikaren inguruan akordioa (HPA) arloetan ekintzen erdiak bete dira; beste arlo guztietan erdiak baino gehiago. Bestalde, 35 ekintza zeregin zehatzik gabe geratu dira.

2014	
Arloa	Ekintzak
1.- Euskararen gaitasuna eta erabilera (EGE)	8 (18, 37, 41, 42, 44, 45, 47, 57)
2.- Arnasgune geografikoak (ARG)	1 (66)
3.- Familia bidezko transmisioa (FBT)	3 (69, 71, 74)
4.- Hiri handiak (HIH)	1 (75)
5.- Elebitasun pasiboa edo hartzailea (EPH)	1 (87)
6.- Kultur kontsumoa (KUK)	4 (95, 97, 98, 100)
7.- Etorkinak (ETO)	- (-)
8.- Komunikagarritasuna eta adierazkortasuna (KOA)	2 (107, 108)
9.- Hizkuntza eskubideak (HIE)	1 (125)
10.- Erakargarritasuna eta prestigioa (ERP)	3 (130, 131, 132)
11.- Informazio eta komunikazioaren teknologiak(IKT)	8 (136, 138, 140, 142, 143, 146, 149, 152)
12.- Hizkuntza politikaren inguruan akordioa (HPA)	1 (155)
13.- Kanpo proiektzioa (KAP)	2 (166, 167)
Guztira	35

7. TAULA: 2014an zeregin zehatzik izan ez duten ekintzak

Laburbilduz, *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)* proiektuaren betetze mailari dagokionez, aurreko datu horiek guztiak aintzat hartuta, %75 bete da 2014an. Hortaz, Agendan bertan 2014ko amaierarako aurreikusitako %60 ondo bete dela esan genezake; emaitzek aurreikuspena hobetu dute.

Datuok gogoan, ikus ditzagun ekintza eta zeregin gehien dituzten 5 arloak, labur-labur bada ere, ekintzen, zereginen eta betetze erakusleen inguruko irudi zehatzagoa izateko.

Oro har zein 2014 urteari begira, ekintza nahiz zeregin gehien dituen arloa **1.- Euskararen gaitasuna eta erabilera (EGE)** da. Izan ere, abiapuntua da; hizkuntza jakitea da hizkuntza erabiltzea ahalbidetzen duen ezinbesteko baldintza, erabilera bermatzeko nahikoa ez bada ere. Horregatik, jarduera ugari bideratu dira ezagutza eta erabilera areagotzeko.

Gaitasunaren arloan, *IRALE deialdia* egin da irakasleen euskara ezagutza eta komunikazio-gaitasuna hobetzeko (EGE 4); *Euskaltegi publikoen eta pribatu homologatuen finantzaketarako bi laguntza deialdiak* eta *Helduek euskara ikas dezaten pizgarri ekonomikoak emateko deialdia* egin dira herritar elebidunen kopurua handitzeko (EGE 14)...

Erabileraren arloan ere hainbat deialdi egin dira, hala nola, *EBPN/ESEP deialdia* eta *Euskalgintza deialdia* euskararen erabilera sozialerako aukerak (aisialdian, kirolean...) areagotzeko (EGE 29); *Hedabideak deialdia* eta *Gaztelaniazko hedabideetan euskararen erabilera areagotzeko deialdia* euskarazko hedabideak sustatzeko (EGE 32); *LanHitz deialdia* enpresetan euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko (EGE 40)...

Bestelakoak ere egin dira: "Prest_Gara" programa gauzatu da irakasleek prestakuntza orokorra euskaraz egiteko aukera izan dezaten (EGE 6); azterketa egin da Lanbide Heziketan euskarazko eskaintza zabaltzeko (EGE 9); materialak sarean jarri dira -nork bere kasa euskara lantzeko materialak, wikipedia edukiak...- gizartearen beharrei ahalik eta ondoen erantzun ahal izateko (EGE 20, 27 eta 30); Eusko Jaurlaritzak lankidetzak hitzarmenak sinatu ditu Nafarroako Gobernuak Euskarabidea Institutuarekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin euskararen lurraldeen arteko elkarlana bermatzeko (EGE 38); Mintzanet sareko tresna sustatu da mintzapraktika egitasmoak zabaltzeko (EGE 39)...

9.- Hizkuntza eskubideak (HIE) arloan, Eusko Jaurlaritzako Elebidek eta Arartekoak lankidetzak hitzarmenak sinatu dute herritarren hizkuntza eskubideak indartzeko (HIE 112); Eusko Jaurlaritza, Justizia Administrazioa, Ertzaintza eta Osakidetzak erakundeetako Erabilera Planen jarraipena egin da euskararen erabilera normalizatzeko bidean (HIE 113, 116, 118, 119); ikastereduak aukeratzeko

eskubidea bermatzea gauzatu da irakaskuntza edozein hizkuntza ofizialetan jaso ahal izateko (HIE 120)...

11.- Informazio eta komunikazioaren teknologiak (IKT) arloan, *IKT deialdia* egin da IKTetan eta sarean euskararen erabilerari bultzada emateko (IKT 139); materialak sarean jarri dira -IKT inbentarioa <http://www.euskadi.eus>, euskara ikasteko materialak <http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/home>, euskarazko softwarea, itzultzaile automatikoa eta hiztegiak <http://www.euskara.euskadi.eus/r59-734/eu-erabiltzaileen> eskura egon daitezen (IKT 141, 145, 150); .eus domeinuaren zabalkundea sustatzen jarraitu da ahalik eta esparru gehienetan erabil dadin (IKT 153)...

13.- Kanpo proiektzioa (KAP) arloan, komunikazio-ekintzak gauzatu dira euskarak munduan dituen zirkuituak ezagutarazteko, eta, Etxepare Institutuaren eskutik nazioarteko azoketan parte hartu da, diru-laguntza deialdiak egin dira... euskara eta euskal kultura nazioartean zabaltzeko (KAP 156); Euskal etxeekin hitzarmenak sinatu dira euskararen ikaskuntza sustatzeko (KAP 158); Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin hitzarmena sinatu da nazioartean kooperazio linguistikoa bultzatzeko (KAP 164)...

5.- Elebitasun Pasiboa edo Hartzailea (EPH) arloko ekintza gehienak "Poziktibity hitz eginez" proiekturen baitan garatu dira, esaterako, euskara ikasteko sentsibilizazioa lantzeko, elebitasunaren balioak gizarteratzeko, euskararen aldeko jarrerak bultzatzeko (EPH 85, 86, 91)...

Horrez gain, gogoan hartu behar ditugu *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)* garatzen lagundu duten eragileak. Eusko Jaurlaritza barruan 40 eragile inguru izan dira eta Eusko Jaurlaritzatik kanpo 60 eragile inguru.

EUSKO JAURLARITZAN
<ul style="list-style-type: none"> • Atal elebidunak • Baliokidetzen Jarraipen Batzordea • EABko Euskara 21 Batzorde-atala • EABko IKT Batzorde-atala • EABko Terminologia Batzorde-atala • EABko Toponimia Batzorde-atala • EITB • EJE • Elebide • Enpresa publikoa duten sail guztiak • Etxepare Euskal Institutua • Euskara atalak • Eusko Jaurlaritzaren Ameriketako Ordezkaritzak • Eusko Jaurlaritzaren Bruselako Ordezkaritza • Eusko Jaurlaritzaren Hegoamerikako Ordezkaritza • Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia • HABE • HAKOBA (Herri Aginteak Koordinatzeko Batzordea) • HPS • IVAP • Kontsumobide • Lanbide • Lehendakaritza • Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea • Sail guztiak • SPRI • Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Saila • Herri Administrazio eta Justizia Saila • Ogasun eta Finantza Saila • Osasun Saila (Osakidetza) • Segurtasun Saila (Ertzaintza) • Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza (Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza) • Hezkuntza Sailburuordetza (Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza) • Hezkuntza Sailburuordetza (Ikastetxeen Zuzendaritza) • Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetza (Gazteria eta Kirolak Zuzendaritza) • Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetza (Kultura Ondarearen Zuzendaritza) • Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetza (Kultura Sustatzeko Zuzendaritza) • Lanbide Heziketako Sailburuordetza • Merkataritza eta Turismo Sailburuordetza (Merkataritza Zuzendaritza) • Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetza

8. TAULA: Eusko Jaurlaritzako eragileak

EUSKO JAURLARITZATIK KANPO

- Adituak
- Aholkularitza enpresak
- Aisia taldeak
- Ararteko
- Begirale eskolak
- Bikain ebaluatzaile kluba
- CANAL +
- EASen Batzorde Eragilea
- EASen Idazkaritza Teknikoa
- EASen Lantalde Teknikoa
- EHUko Unesco Katedra
- EIZIE (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte)
- Elhuyar
- Emun
- Enpresa aitzindariak
- Enpresa aukeratuak
- Enpresa elkarteak
- Enpresarien elkarteak
- Eskola komunitatea
- EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarte)
- Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa (KONFEKOOP)
- Euskal Etxeak
- Euskalit
- Euskaltegiak
- Euskaltzaindia
- Euskara elkarteak
- Euskararen Erakunde Publikoa (EEP)
- .EUS Fundazioa
- Foru aldundiak
- Hedabideak
- HEKIMEN
- Hezkuntza eragileak
- Hizkuntza industriak
- HUHHEZI
- Ikastetxeak
- IKT enpresa eredugarriak
- Jarraipen Batzorde Teknikoa
- Kirol Federazioak
- Kirol taldeak
- Kultur taldeak
- Labayru Ikastegia
- Lanbide Heziketako itunpeko ikastetxeak
- Merkataritza elkarteak
- Merkataritza ganbarak
- Nafarroako Euskara Kultur Elkargoa (EKE)
- Nafarroako Gobernuako Euskarabidea Institutua
- NPLD
- Ostalaritza elkarteak
- Prospekzio enpresak
- Sindikatuak
- Soziolinguistika klusterra
- TOKIKOM
- Topagune
- Udalak
- UEMA (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea)
- Unibertsitateak
- UZEI
- Balear Uharteetako Gobernua
- Galiziako Gobernua
- Kataluniako Gobernua
- Ekuadorreko Gobernua
- Kolonbiako Gobernua
- Txileko Gobernuaren CONADI erakundea

9. TAULA: Eusko Jaurlaritzatik kanpoko eragileak

Analisi kuantitatiboa egiteaz gain, alderdi kualitatiboa ikustea ere interesgarria da. Horregatik, behin 2014ko kudeaketa planaren jarraipena eginda, AMIA analisia gauzatu da urteko balorazio moduan.

BARNEKO FAKTOREAK	KANPOKO FAKTOREAK
AHULEZIAK	MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"> • Kostu ekonomiko handia du • Ez dira bete ekintza eta zeregin batzuk • Ez dira jaso HPSko jarduera guztiak • Ez dago euskararen aldeko lider sendorik • Ez dago euskararen aldeko araudi sendorik 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez du oihartzun handirik gizartean • Ez da elkarlanik egin eragile batzuekin
INDARGUNEAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"> • Eusko Jaurlaritza barruko eragileekin elkarlanean aritzeko aukera eman du • Euskara indarberritzeko ekintzak gauzatu dira 	<ul style="list-style-type: none"> • Eusko Jaurlaritzatik kanpoko eragileekin elkarlanean aritzeko aukera eman du • Euskararen egoera hobetzeko baliagarria izan da

10. TAULA: AMIA matrizea

2014ko kudeaketa planaren jarraipena egin ostean, ahulezia / mehatxu horiei aurre egin eta aurkitutako hutsuneak betetzeko asmoz, ekintza zuzentzaile batzuk proposa genitzake 2015eko kudeaketa planerako, modu orokorrean baino ez bada ere.

Barneko faktoreei dagokienez, honako hauek aipa genitzake:

- Euskara indarberritzeak diru asko eskatzen du: euskara sustatzeko diru-laguntzak emateko, euskararen aldeko kanpainak antolatzeke, euskarazko produktuak sortzeke... Aurrekontua urterik urtera aldatzeak eragina izan dezake Agendan proposatzen diren jarduerak bideratzeko orduan. Gainera, krisi eta murrizketa garaian, hain oinarritzotzat jotzen ez diren gaiak albo batera utzi ohi dira. Hala ere, ez da ahaztu behar euskara indarberritzea etengabeko jarduera dela; beraz, emaitza onak lortu nahi baditugu, euskara sustatzeko aurrekontu nahikoa izatea ziurtatu behar dugu.
- Ekintza batzuek ez dute zeregin jakinik izan 2014an, nahita, baina beste batzuk bete gabe geratu dira. Agendaren betetze maila aurreikusitakoa izan bada ere, bete gabeko ekintza eta zeregin horiek bereziki bultzatu behar dira albo batera gera daitezten saihesteko; edo bestela ekintzok birdefinitzea komeni den aztertu beharko da.

- HPSn egiten diren jarduera guztiak jaso gabe geratu dira, hala nola, zenbait hitzarmen, kontratu batzuk... Jaso ez diren egitekoak ere Kudeaketa Planean islatu behar dira (edo behintzat horien inguruko informazioa non eskura daitekeen adierazi); horrek euskararen inguruan egiten den lanari osotasuna emango lioke.
- Euskaren munduan lider sendoak falta dira. Horregatik, arduradun politikoek eta erakundeetako arduradunen inplikazio handiagoa lortu behar da; modu horretan, euskararen alde egiten den lanak oihartzun handiagoa izango luke.
- Euskararen aldeko legedia sendoa falta da. 10/1982 Legea, *Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoa*; 86/1997 Dekretua, *EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzekoa*; 123/2008 Dekretua, *Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzkoa*; 204/2010 Dekretua, *Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko dekretua aldatzekoa*... dauden arren, euskarak duen babesa ez da nahikoa; hizkuntza eskubideak behin eta berriro urratzen badira ere, horrek ez dakar zigor larririk. Hortaz, legeria bete dadin neurri gehiago eta zorrotzagoak hartu behar dira.

Kanpoko faktoreei begira, honako hemen aipagarrienak:

- Agendak ez du behar besteko zabalkunderik eta jarraipenik gizartean; ez enpresa-munduan, ez kulturaren, ez kalean. Hori dela eta, ondo legoke komunikazio kanpaina zabalagoa egitea, Agenda osotasunean hartuta, euskara sustatzeko lanari batasuna emateko.
- Euskara eragile guztiek ez dute bere tokia Agendan. Aberasgarria izango litzateke euskara eragile gehiagoren parte hartzea bultzatzea; zenbat eta gehiago izan, eragin eta zabalkunde handiagoa izango du euskarak.

4.4. 2015EKO KUDEAKETA PLANA

Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016). Kudeaketa Planaren barruan, 2015eko kudeaketa plana egin da. Egiteko horretan kontuan izan dira honako hauek: 2014an bete ezin izan diren ekintzak, 2014an %100 osatu ez diren ekintzak, 2014an zeregin zehatzik izan ez duten ekintzak, urtero errepikatzen diren zereginak eta berriak diren zereginak, beti ere urteko aurrekontua eta eragileak ahaztu gabe. Batzorde Eragileak ontzat emana du kudeaketa plana.

Horren arabera, 2015 urteko garapenari dagokion aurreikuspenean, 168 ekintza guztietatik 168 ekintza garatzea aurreikusi da; eta ekintza horiek garatu ahal izateko, 283 zeregin proposatu dira zehazki. 2014ko kudeaketa planean bezala, hainbat betetze erakusle erabili dira: deialdiak egitea, hitzarmenak sinatzea, materialak sarean jartzea, komunikazio-ekintzak gauzatzea, diru-laguntzak bideratzea...

Arloa	Ekintza guztiak	2015	
		Ekintzak	Zereginak
1.- Euskararen gaitasuna eta erabilera (EGE)	61 (1-61)	61	118
2.- Arnasgune geografikoak (ARG)	5 (62-66)	5	8
3.- Familia bidezko transmisioa (FBT)	8 (67-74)	8	12
4.- Hiri handiak (HIH)	8 (75-82)	8	14
5.- Elebitasun pasiboa edo hartzailea (EPH)	10 (83-92)	10	12
6.- Kultur kontsumoa (KUK)	8 (93-100)	8	11
7.- Etorkinak (ETO)	5 (101-105)	5	7
8.- Komunikagarritasuna eta adierazkortasuna (KOA)	5 (106-110)	5	8
9.- Hizkuntza eskubideak (HIE)	15 (111-125)	15	21
10.- Erakargarritasuna eta prestigioa (ERP)	8 (126-133)	8	8
11.- Informazio eta komunikazioaren teknologiak (IKT)	20 (134-153)	20	32
12.- Hizkuntza politikaren inguruan akordioa (HPA)	2 (154-155)	2	4
13.- Kanpo proiektzioa (KAP)	13 (156-168)	13	28
Guztira	168	168	283

11. TAULA: 2015ean betetzekoak diren ekintzak eta zereginak arloz arlo

4.5. 2015EKO KUDEAKETA PLANAREN JARRAIPENA

Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016). Kudeaketa Plana gogoan, 2015eko kudeaketa planaren jarraipena egiteko, 2015eko ekainean zehar bilerak egin dira HPSko 3 zuzendaritzetako zuzendariekin eta HABEko zuzendariarekin; bideratuta dauden ekintzak eta zereginak jaso dira eta egin gabe daudenei bultzadatxo bat eman behar zaiela gogora ekarri da. Tarteko jarraipen hau 2015eko urte amaierako bilerekin osatzea espero da.

Bestelakoan, deialdiak egiten jarraitu da, hitzarmenak egin eta aurretik egindakoen jarraipena egin da, sarea materialez hornitzen eta erabiltzaileen esku jartzen segitu da...

Arloa	Ekintza guztiak	2015			
		Ekintzak		Zereginak	
		bete bai	bete ez	bete bai	bete ez
1.- Euskararen gaitasuna eta erabilera (EGE)	61 (1-61)				
2.- Arnasgune geografikoak (ARG)	5 (62-66)				
3.- Familia bidezko transmisioa (FBT)	8 (67-74)				
4.- Hiri handiak (HIH)	8 (75-82)				
5.- Elebitasun pasiboa edo hartzailea (EPH)	10 (83-92)				
6.- Kultur kontsumoa (KUK)	8 (93-100)				
7.- Etorrinak (ETO)	5 (101-105)				
8.- Komunikagarritasuna eta adierazkortasuna (KOA)	5 (106-110)				
9.- Hizkuntza eskubideak (HIE)	15 (111-125)				
10.- Erakargarritasuna eta prestigioa (ERP)	8 (126-133)				
11.- Informazio eta komunikazioaren teknologiak (IKT)	20 (134-153)				
12.- Hizkuntza politikaren inguruan akordioa (HPA)	2 (154-155)				
13.- Kanpo proiektzioa (KAP)	13 (156-168)				
Guztira	168				
Aurreikusita					

12. TAULA: 2015ean beteko diren / beteko ez diren ekintzak eta zereginak arloz arlo, osatzeko

5. ONDORIOAK

Euskal eremuan euskara gero eta gehiago erabil dadin eta euskaldunok euskara eguneroko hizkuntza izan dezagun sustatzeko, Eusko Jaurlaritzak -Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzaren eskutik- *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)* proiektua gauzatzen dihardu legegintzaldi honetan.


Agendaren helburua da euskararen bilakaera soziolinguistikoaren adierazle nagusietan -15 esparrutan- aurrerapauso neurgarriak egitea, eta horiek ebaluatzeko 38 adierazle finkatu dira⁹. Horiek guztiak neurtzeko kontuan hartuko dira euskararen *Inkesta Soziolinguistikoaren* (2016an argitaratzeko) eta *Mapa Soziolinguistikoaren* (2016an argitaratzeko) datuak eta, halaber, berariazko Erabilera Plan bakoitzean jasotako datuak. Horrenbestez, ordura arte itxaron beharko dugu proiektuaren behin betiko emaitza nolakoa izango den jakiteko.

Alabaina, sakontze egitasmo honen helburu nagusiari buruzko gogoeta txiki bat egin genezake. Egindako azterketari adi, *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)* proiektuaren bidez -*Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)*. *Kudeaketa Plana* bitarteko hartuta- euskara indarberritzeko hainbat ekintza gauzatu dira. 2014 urterako aurreikusitako jarduerak ondo bete dira; uste baino hobeto gainera. Aurrera begira dauden asmoei dagokionez, 2015 eta 2016an ere 2014ko bide beretik jarraitzea espero da; bete ez diren ekintzak gauzatzeko ahaleginean, eta urtero errepikatzen diren zereginak eta zeregin berriak bultzatzen.

Planifikazioaren egokitasunari dagokionez, kudeaketa planaren jarraipena egitean hobetu beharreko puntu batzuk aurkitu dira, nahiz eta erabilitako taktika berez txarra ez izan. EBPnk batutako ahulezia / mehatxu batzuk konpontzeko bidean daude, eta aurrerapausoak eman dira; hala ere, ekintza zuzentzaile batzuk proposatzea egokitzat jo da 2016ra arteko asmoak osatu eta eguneratzeko. Esate baterako, 2015eko kudeaketa plana osatzean doiketa batzuk egin dira; zeregin batzuk birdefinitu eta osatu egin dira. Gainera, seguruenez, 2016ko azken ebaluazioak ere bistaratuko ditu hurrengo urteetan euskara modu eraginkorren sustatu ahal izateko egin beharreko zuzenketak.


⁹ Ikusi Eranskina.

Bilakaera soziolinguistikoan aldaketa esanguratsuak sortzeko denbora tarte nabarmena behar izaten den arren, azken 30 urteotan euskararen bilakaerak izan duen joera positiboa sendotu nahi du *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)* proiektuak, arestian aipatu diren adierazleetan hazkundera eraginez¹⁰. Esate baterako, datuen arabera, azken 3 hamarkadetan euskal herritarren euskararen ezagutzan eta erabileran aurrera egin da; erabileran neurri apalagoan¹¹. 2016ko datuek emango ahal dute datu itxaropentsurik!



3. GRAFIKOA: Euskaldunen bilakaera, lurraldearen arabera. EAE, 1981-2011 (%)

Iturria: V. Mapa Soziolinguistikoa. 2011.



4. GRAFIKOA. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera, lurraldearen arabera. EAE, 1991-2011 (%)

Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa. 2011.

¹⁰ Hazkunde horretan ez da ehuneko jakinik aurreikusi, 4 urteko epealdian zehaztasun hori ematea nabarmenkeria izango litzatekeelakoan.

¹¹ Informazio gehiagorako ikusi HPS (2013, 2014a).

6. BIBLIOGRAFIA

- ARRUTI, I. (2014): "Hizkuntza plangintza udalerrri mailan". *HIZNET, Hizkuntza plangintza Unibertsitateko Espezialista*. 5.1. ikasgaia. EHU, Donostia.
- EMUN (2014): "Lan munduko hizkuntza plangintzak". *HIZNET, Hizkuntza plangintza Unibertsitateko Espezialista*. 5.3.1. ikasgaia. EHU, Donostia.
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (1999): *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
<http://www.euskara.euskadi.eus/r59-733/eu/>
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2009): *Euskara 21. Itun berri baterantz*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/esep_sarrera/eu_esep/adjuntos/euskara21_itun_berritu.pdf
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2012): *Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/informacion/esep_sarrera/eu_esep/esep.html
- EUSKO JAURLARITZA (2013): *2012-2016ko Gobernu Programa*.
http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/blt29/documentos/GV_2012-2016_e.pdf
- FISHMAN, J.A. (1991): *Reversing Language Shift; Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Multilingual Matters, Clevedon.
- GAÑAN, M. (2014): "Euskararen erabilera planak herri administrazioetan". *HIZNET, Hizkuntza plangintza Unibertsitateko Espezialista*. 5.2. ikasgaia. EHU, Donostia.
- HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA (2011): *Euskararen egoerari eta bilakaerari buruzko adierazleak*.
http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/ebpn_txostena/EBPN%20Txostena%20eusk.pdf

- HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA (2013): V. *Inkesta Soziolinguistikoa*. 2011. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/V.%20Inkesta.pdf
- HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA (2014a): V. *Mapa Soziolinguistikoa*. 2011. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51catpub/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=051560&N_EDIC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf
- HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA (2014b): *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-catpub/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_LIBR=051545&N_EDIC=0001&C_IDIO M=eu&FORMATO=.pdf
- HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA (2014c): *Euskararen Agenda Estrategikoa (2013-2016)*. *Kudeaketa Plana*. Argitaratu gabea.
- MARKO, I. (2014): "Plangintzaren funtsa teoriko eta teknikoak", *HIZNET, Hizkuntza plangintza Unibertsitateko Espezialista*. 4.1. ikasgaia. EHU, Donostia.
- MOSTEIRO, J.I. (2014): "Hizkuntza normalkuntzarako plangintza orokorra", *HIZNET, Hizkuntza plangintza Unibertsitateko Espezialista*. 4.2. ikasgaia. EHU, Donostia.
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2011): *Hizkuntzen kale-erabileraren VI. neurketa 2011*.
<http://www.soziolinguistika.eus/>
- ZALBIDE, M. (2014): "Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko", *HIZNET, Hizkuntza plangintza Unibertsitateko Espezialista*. 1.3. ikasgaia. EHU, Donostia.
- ZARRAGA, A. eta lag. (2010): *Soziolinguistika eskuliburua*. Soziolinguistika Klusterra / Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/SOZIOLINGUISTIKA_ESKULIBURUA-azkena.pdf

- 10/1982 Legea, *Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa* (EHAA, 1982ko abenduaren 16a, 160 zk.)
- 86/1997 Dekretua, *EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzekoa* (EHAA, 1997ko apirilaren 17a, 72 zk.)
- 6/2003 Legea, *Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutuarena* (EHAA, 2003ko abenduaren 30a, 254 zk.)
- 123/2008 Dekretua, *Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzkoa* (EHAA, 2008ko uztailaren 16a, 135 zk.)
- 204/2010 Dekretua, *Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko dekretua aldatzekoa* (EHAA, 2010eko uztailaren 26a, 142 zk.)
- 2/2012 Legea, *Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutuaren 6/2003 Legea aldatzekoa*. (EHAA, 2012ko otsailaren 17a, 35. zk.)
- 1/2014 Ebazpena, *V. plangintzaldiko (2013-2017) Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia onartzeari buruzkoa*. (EHAA, 2014ko urtarrilaren 24a, 16 zk.)

ERANSKINA

Helburua, aurrerapauso neurgarriak eragitea esparru hauetan	Adierazlea
1. Euskal biztanleriaren euskara-gaitasun orokorrean	1.1. Hizkuntza gaitasuna, lurraldearen arabera. EAE (%) 1.2. Euskaldunen bilakaera, lurraldearen arabera. EAE (%) 1.3. Euskaldunen bilakaera, adinaren arabera. EAE (%)
2. Euskal biztanleria elebakarraren euskarazko oinarritzko ezagutzan	2.1. Elebidun hartzaileen bilakaera, lurraldearen arabera. EAE (%) 2.2. Partzialki euskaldun berrien bilakaera, lurraldearen arabera. EAE (%) 2.3. A1 eta A2 ziurtagiriak eskuratzen dituzten kopurua
3. Euskal herritarren euskararen erabileran	3.1. Euskararen erabileraren bilakaera. EAE (%) 3.2. Euskararen erabilera adinaren arabera. EAE (%) 3.3. Euskararen erabileraren bilakaera etxean. EAE (%) 3.4. Euskararen erabileraren bilakaera eremu hurbilean. EAE (%) 3.5. Euskararen erabileraren bilakaera eremu formalean. EAE (%)
4. Euskal biztanleriaren euskararekiko atxikimenduan	4.1. Euskara sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera. EAE (%) 4.2. Euskara sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera, hizkuntza gaitasunaren arabera. EAE (%) 4.3. Euskarari buruzko interesaren bilakaera. EAE (%)
5. Eusko Jaurlaritzaren esparruan euskarak lan-hizkuntza gisa duen erabileran	5.1. Euskaraz sortzen den dokumentazioaren indizea 5.2. Lan bileretako euskararen erabileraren indizea
6. Eusko Jaurlaritzaren esparruan euskara zerbitzu hizkuntza gisa orokortzera bidean	6.1. Euskararen erabileraren bilakaera arretako eta jende aurreko zerbitzuetan 6.2. ELEBIDEn jasotako kexa kopurua
7. Eusko Jaurlaritzaren mendeko sozietate publikoetan euskararen presentzia sendotzera bidean	7.1. Sozietate publikoetako erabilera-planen bilakaera. Eusko Jaurlaritza 7.2. Sozietate publikoetako idatzizko kanpo harremanen hizkuntzaren bilakaera. Eusko Jaurlaritza 7.3. Sozietate publikoetako ahozko kanpo harremanen hizkuntzaren bilakaera. Eusko Jaurlaritza
8. Eusko Jaurlaritzaren ordezkarien eta organoen jardun publikoan euskarak duen erabilera mailan	8.1. Euskararen erabileraren ehunekoa denbora eta gaiaren arabera: Legebiltzarrean, hedabideen aurrean, bestelako ekitaldietan
9. Eusko Jaurlaritzaren eta gainerako herri aginteen arteko harremanetan euskarak duen erabilera mailan	9.1. Administrazioen arteko harremanetako euskararen erabileraren bilakaera
10. Eusko Jaurlaritzan Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideetan	10.1. Eusko Jaurlaritzan Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideen aplikazioaren betetze maila
11. Eusko Jaurlaritzako langileen eta erakunde-ordezkarien hizkuntza gaitasunean	11.1. Eusko Jaurlaritzako hizkuntza eskakizunen betetze maila 11.2. Eusko Jaurlaritzako erakunde-ordezkarien hizkuntza gaitasuna
12. Eusko Jaurlaritzako langileen eta erakunde-ordezkarien euskararekiko atxikimenduan	12.1. Eusko Jaurlaritzako langileen eta erakunde-ordezkarien balorazioa Jaurlaritzako erabilera-planarekiko 12.2. Eusko Jaurlaritzako langileen eta erakunde-ordezkarien asistentzia eta parte-hartze aktiboa Jaurlaritzako erabilera-planeko ekimenetan
13. Merkataritza gunen handietan eta zerbitzu unibertsalak (ura, elektrizitate, gas hornitzaileak eta beste) ematen dituzten enpresa handietan kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak duten betetze mailan	13.1. Ahozko kanpo harremanen hizkuntzaren bilakaera jarduera sektorearen arabera. EAE (%) 13.2. Idatzizko kanpo harremanen hizkuntzaren bilakaera jarduera sektorearen arabera. EAE (%) 13.3. Bezeroaren arreta zerbitzuaren hizkuntzaren bilakaera jarduera sektorearen arabera. EAE (%)
14. Merkataritza eta ostalaritza orokorraren arloko euskararen erabileran	14.1. 123/2008 Dekretuak, kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzkoak, eta berau aldatzen duen 204/2010 Dekretuak, ezarritako araudiaren betetze maila, betetzen duten enpresa kopuruaren arabera.
15. Informazio eta komunikazioaren teknologietan euskarak dituen baliabideetan eta erabileran	15.1. Euskararen Interneteko posizioa 15.2. Euskararen twitter-eko posizioa 15.3. Euskarazko itzultzaile automatikoaren hizkuntza-pareen kopurua eta erabiltzaile kopurua 15.4. Euskarazko nabigatzaileen erabiltzaile kopurua 15.5. Agerkari digitalen kopurua 15.6. Wikipediako euskarazko sarrera kopurua